

GETXO BIZIAREN INBUTUAREN LEGEA

Getxoko auzokideok:

Lehenengo aldi honetan, zuen etxera hurbildu nahi dugu, EZKER BATUA - BERDEAKen udal-ordezkaritzarekin zerikusia duten gertaeren berri emateko. Horrez gain, Getxo Bizia plataformak herriak borondatez aukeratutako gure zinegotzietako batek kargua bertan behera uzteko eskatu duela adierazi nahi dizuegu.

Batzuk hainbeste aldarrikatzen duten herritarren borondatea argia baino argiagoa izan da Getxon: **EZKER BATUA - BERDEAKek 3.538 boto (%7,23) lortu zituen azken udal-hauteskundeetan**, emandako 50.462 botoetatik (Getxo Bizia plataformarenak kontuan hartuta). Kontuak argi eta garbi daude, gure udalak dituen 25 zinegotzietatik, proportzioen arabera 2 dagozkigulako inolako zalantzarik gabe.

Demokraziaren eta herritarren borondatearen alde daudenek ez dute egoera hori ukatzerik: proportzioen arabera, botoa eman diguten 3.538 lagunak gure udaleko 25 zinegotzietako 2k ordezkatu behar dituzte.

Esandako guztia kontuan hartuta, eta eztabaidea zina da, gure indarreko legeriak herritarren borondatea zenbait eratarik aldatzeko aukera eskaintzen du:

>> Lehenengo eta behin, hautagaitza batek emandako botoen %5 lortu behar ditu gutxienez, udalean ordezkaritza eduki

EZKER BATUA BERDEAK no ha "robado" ningún concejal, ya que la representación municipal que tiene es la que le ha otorgado democráticamente el pueblo de Getxo, ni más, ni menos. No admitiremos que nadie nos aplique la "ley del embudo" aprovechándose de la parte de la legalidad electoral que le interesa por injusta que esta sea, mientras nos achaca a otros el mantenimiento de la que le perjudica.

ahal izateko. Gogoan izan behar dugu EZKER BATUA - BERDEAKek 2.145 boto erdietsi zituela 1999ko udal-hauteskundeetan. Hori dela eta, zinegotzi bat zegokigun proportzioen arabera. Nolanahi ere, %5 lortu ez genuenez, 2.145 lagun horiek ez zuten ordezkaritza politikorik izan. Une hartan, ez genuen bazterketa horren aurkako ahots bakar bat ere entzun.

>> Bigarrenez, sistema proportzional garbia barik, D'Hont sistema ezar dezakegu ordezkaritza esleitzeko orduan. **Lehen sistema hori gehiengoa duten alderdien mesederako da, euren botoen arabera legokiekeen ordezkaritza handitu egiten delako.** Aldi berean, ordea, hautagaitza txikien kalterako da, euren ordezkaritasuna gutxitu egiten delako. EZKER BATUA - BERDEAKek urteak eta urteak daramatza borrokatzen, garbitasun demokratikoa zapuzten duen sistema hori indarririk gabe uzteko. Nolanahi ere, Getxo Bizia plataformak inolako zalantzarik gabe aldarrikatzen du demokraziaren aurkakoa eta gehiengodun alderdien interesen aldekoa den sistema bidegabe hori, unean-unean bere mesederako delako.

>> Hirugarrenez, azken hauteskundeetan beste gorabehera bat gertatu da, Alderdiei buruzko Legea ezartzean hiritarren plataformak kanpoan geratu direlako. EZKER BATUA - BERDEAKek behin eta berriro eta argi eta garbi adierazi du horren aurka dagoela.

Azken batean, EZKER BATUA - BERDEAKek ez du zinegotzirik "lapurtu", udalean daukan ordezkaritza Getxoko herriak eman diolako demokraziaren bitartez, ez gehiago ez gutxiago. Ez dugu inolaz ere onartuko inork guri "inbutuaren legea" ezartzea, oso bidegabea izan arren eurentzat interesgarria den hauteskunde-legeriaren zatian oinarrituta, besteok eurentzat kaltegarria den zatiari eusten diogula leporatzen diguten bitartean.

Bitxi da, gero, "hiritarren plataforma" horrek **EZKER BATUA - BERDEAK euskal ezker eraldatzailearen aukera politikoko 2.000 inguru boto-emaila ordezkaritza-**

rik gabe utzi nahi izatea, isildu eta alderdi handien larregizko ordezkaritza onesten duen bitartean.

Lehen esan dugunez, ondotoxo ulertzen ditugu horrelako arrazoiren baten ondorioz kanpoan geratu diren hautagaitzen erreklamazioak (nola ez ditugu ulertuko, ba, iraganean guk geuk bazterketa hori nozitu badugu). Era berean, gure iritziz, demokrazian talde eta pertsona guztiek dute euren premisak defendatzeko aukera. Hala ere, ez dugu onartzen eskari horiek gure ordezkaritza jasaten ari diren jazarpen pertsonalean, irainetan, ahaiketan edo metodo mafiosoetan oinarritzea.

Gobernu-hitzarmenaren bidez udaletxera iritsi ginenetik, auzokide eta aukera politikoko guztien partaidetza sustatu dugu. Herritarren partaidetzan sinesten dugu, eta partaidetzan gehiago oinarritzen den udalaren alde egiten jarraituko dugu. Horixe bera da eta izan da gure proposamena. Horixe da modua. Horixe da bidea. Aukera politikoen, elkarrean, auzokide-erkidegoen eta zenbait erakunderen partaidetza zuzenaren alde daudenei euren proposamenak bakean adierazteko eskatu nahi diegu. Gure talde politikoa euren aliatua izango da beti, bai eta zuen proposamenak bide-ratzeko tresna ere.

Ezker Batua - Berdeak-eko Getxoko toki-batzarra
mail: ebbgetxo@yahoo.es

ezker batua